Communauté D'AGGLOMÉRATION PAYS BASQUE EUSKAL HIRIGUNE Elkargoa

SYNDICAT DES MOBILITÉS PAYS BASQUE - ADOUR

Interreg POCTEFA E-MOBASK

Bayonne, le 16 juillet 2018

# COMMUNIQUÉ DE PRESSE

## LA COMMUNAUTÉ PAYS BASQUE JOUE LA CARTE DU TOUR DE FRANCE 2018

**Cap sur la 20e étape du Tour de France qui se déroulera le 28 juillet prochain en terre basque. Cette étape, organisée entre Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette, propose l'unique contre-la-montre de cette 105e édition du Tour de France. La Communauté Pays Basque participe à cet événement populaire en soutenant ses deux villes membres, Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette. De plus, elle propose avec son Syndicat des Mobilités, un dispositif de navettes gratuites pour se rendre sur l'étape en toute sérénité.**




Le 28 juillet prochain, la Communauté Pays Basque accueille la 20e étape du Tour de France 2018 pour un « contre-la-montre » unique et décisif. Elle apporte son soutien financier et logistique aux villes de Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette pour faire de ce rendez-vous sportif une véritable fête pour les habitants et les spectateurs d'ici et d'ailleurs.

À l'occasion de cet événement populaire, la Communauté Pays Basque et son Syndicat des Mobilités mettent en place un dispositif gratuit de navettes afin de faciliter l'accès à l'étape.
C'est simple, il suffit de stationner son véhicule dans l'un des sept parkings relais aménagés : à Biarritz, Saint-Jean-de-Luz, Larressore, Cambo, Itxassou, Ainhoa, Sare (plan détaillé dans le **Guide pratique du Tour de France).**
Une navette spéciale Tour de France, proposant un départ régulier toutes les 5, 10, 15 ou 20 minutes en fonction des lignes) conduit les citoyens jusqu'au passage du Tour. Cinq terminus sont desservis, ainsi que de nombreux arrêts. Au retour, la navette récupère les spectateurs à l'endroit où ils avaient été déposés.
**+** Toutes les infos pratiques (horaires, emplacements de parkings, lignes) sont à retrouver dans **le Guide pratique du Tour de France** ou sur le site www.communaute-paysbasque.fr

**Un programme au top concocté par Saint-Pée-sur-Nivelle et Espelette**

La Communauté Pays Basque soutient financièrement les deux villes de son territoire dans la préparation de cet événement. Plusieurs temps forts sont programmés dans ces deux villes, au départ de l'étape à Saint-Pée-sur-Nivelle, et à l'arrivée, à Espelette.

**À Saint-Pée-sur-Nivelle :**
Le Village du Tour est installé sur le parking du trinquet Gantxiki et la place Xan Ithourria. Il est le lieu de rencontre entre les suiveurs du Tour et les visiteurs du jour (accessible sur accréditation).

Le paddock est installé entre le rond-point d'Olha et la boulangerie Darrigues : le public pourra s'installer autour et voir les coureurs des 22 équipes s'échauffer.

La caravane publicitaire, forte de 170 véhicules (soit 43 marques représentées) s'élancera du parking du Lac pour un passage sur la ligne de départ à 10h30.

La rampe de lancement est installée au fronton. Un écran géant permettra de retransmettre l'étape. Le premier coureur s'élancera à 12h puis les départs se feront de 1'30'' en 1'30'' puis de 2' en 2'. Dernier départ avec le maillot jaune à 16h29.

L'espace restauration et repos au Parc des Berges :
Les associations de Saint-Pée proposeront de la restauration rapide locale, plus un espace de jeux ainsi qu'un écran géant.

**À Espelette :**
À l'arrivée, tout sera mis en place pour accueillir la caravane publicitaire vers 11h15, puis les coureurs, jusque vers 17h15. En soirée, le public pourra assister à la montée du podium. Suivront des animations pour poursuivre cette fête du vélo.

**En marge du tour**
Un spectacle pyrotechnique est prévu au lac de Saint-Pée sur Nivelle le 21 juillet. De plus, l'exposition « Tour de France cycliste en Pays Basque (1906-2018) » sera proposée du 30 juin au 30 septembre au Musée Basque et de l'histoire de Bayonne.

**Le savez-vous ?**
**La piscine Landagoyen sera fermée au public**
L'étape du tour emprunte les départementales 250 et 88 via Ustaritz. Ces deux axes constituent les principales dessertes de la piscine Landagoien. Ils seront fermés à la circulation entre 9 heures et 18 heures le 28 juillet prochain. De fait, la piscine Landagoien sera fermée au public ce jour-là.

**+** d'infos sur les horaires, les animations proposées dans les villes sur les sites des villes de Saint-Pée-sur-Nivelle : www.saint-pee-sur-nivelle.com et Espelette : www.espelette.fr

Contact presse :
Direction de la communication de la Communauté d'Agglomération Pays Basque /
Euskal Hirigune Elkargoko komunikazio zuzendaritza
05 59 44 74 58

Baiona, 2018ko uztailaren 16an

# PRENTSA OHARRA

## EUSKAL ELKARGOAK 2018KO FRANTZIAKO ITZULIAN PARTE HARTZEN DU

**Frantziako itzuliaren 20. etapa dugu xede, uztailaren 28an ibiliko baitzaigu euskal lurretan. Etapa hori Senpere eta Ezpeleta artean da antolaturik, Frantziako itzuliaren 105. edizio honen erlojupeko bakar gisan. Euskal Elkargoak herritar ekitaldi honetan parte hartzen du etaparen leku diren elkargoko bi herri sostengatuz, Senpere eta Ezpeleta. Horrez gain, bere Mugikortasunen Sindikatuaren bitartez, etapara lasaiki joateko joan-jinkariak proposatzen ditu urririk.**




Heldu den uztailaren 28an, Euskal Elkargoak 2018ko Frantziako itzuliaren 20. etapa hartuko du, hau da, erlojupeko bakar eta erabakiorra. Diruzko eta logistikako sostengua eskaintzen dizkie Senpere eta Ezpeleta herriei, kirol ekitaldi hori besta ederra gerta dakien hemengo eta kanpoko biztanle eta ikusleei.

Herritar ekitaldi honen karietara, Euskal Elkargoak eta bere Mugikortasunen Sindikatuak joan-jinkariak eskaintzen dituzte urririk etapa ikustera joaten laguntzeko.
Erraz duzu, zure ibilgailua antolatu diren zazpi aparkalekuetako batean aparkatu besterik ez duzu egin behar: Biarritz, Donibane Lohizune, Larresoro, Kanbo, Itsasu, Ainhoa, Sara herrietan dituzu (plano xehea ***Frantziako Itzuliaren Gida Praktikoan***).
«Frantziako itzulia» joan-jinkari berezia duzu hor, erregularki ateratzen dena 5, 10, 15 edo 20 minutuz behin, lineen arabera, eta itzuliaren pasatze lekuetaraino eramanen zaitu. Bost azken geltoki ditukezu eta, tartean, beste hainbat geldileku ere. Berriz gibel egitean, ikusleak utzi dituen lekuan hartuko ditu autobusak.
**+** Informazio baliagarri guztiak (ordutegiak, aparkalekuen kokalekuak, lineak) Frantziako itzuliaren **gida praktikoan dituzu** edo webgune honetan: www.communaute-paysbasque.fr

**Senperek eta Ezpeletak artoski apailatu egitarau hauta**

Bere lurraldeko bi herriei diruzko laguntza ematen die ere, ekitaldia ederki presta dezaten. Bi herri horietan bada une garrantzitsu zenbait antolaturik, hala etaparen abiatzean, Senperen, nola helmugan, Ezpeletan.

**Senperen:**
Itzuliaren herrixka Xan Ithourria plaza eta Gantxiki trinketearen aparkalekuan dago. Itzuliaren jarraitzaileen eta bisitarien arteko topalekua da (akreditazioa behar da).

Paddocka Olhako biribilgunearen eta Darrigues okindegiaren artean dago: publikoa inguruan koka daiteke eta 22 taldeetako txirrindulariak beroketa lanetan ikus.

Publizitate karabanak 170 ibilgailu ditu (43 marka iragarriz) eta Lakuko aparkalekutik abiatuko da eta etaparen abiapuntua 10:30ean igaroko du.

Abiatze arrapala frontoian dago. Pantaila erraldoi batek erakutsiko digu etapa. Lehen txirrindularia 12etan abiatuko da eta hortik goiti, 1'30''tik behin abiatuko dira, hasieran, hurrengoak, eta gero 2'tik behin. Azken abiatzea, atorra horiarena, 16:29an izanen da.

Jan eta pausa lekua Erreka-bazterreko Parkean:
Senpereko elkarteek tokiko janari lasterra eskainiko dute, bai eta jostaleku bat eta pantaila erraldoia ere.

**Ezpeletan:**
Helmugan, guztia antolatuko da publizitate karabana 11:15 aldera hartzeko eta txirrindulariak horren ondotik, 17:15 aldera arte. Arratsean, publikoak ohore tauladaren ekitaldia ikusi ahalko du. Horren ondoan, animazioak izanen dira bizikleta bestarekin jarraitzeko.

**Itzuliaren inguruan**
Suziri ikuskizun bat eginen da Senpereko lakuan uztailaren 21ean. Horrez gain, «Frantziako Tourra Euskal Herrian (1906-2018)» erakusketa proposatuko da ekainaren 30etik irailaren 30era Baionako Euskal Museoan.

**Bazenekien?**
**Landagoien igerilekua hetsirik izanen da**
Tourraren etapak Departamenduko D250 eta D88 errepideak hartuko ditu, Uztaritzerako bidean. Bi errepide horiek dira Landagoien igerilekura joateko bide nagusiak eta zirkulaziora hetsirik izanen dira 9etatik 18 orenetara uztailaren 28an. Hartara, Landagoien igerilekuak ez dizkio publikoari ateak zabalduko egun horretan.

**Informazio gehiago** ordutegietaz eta herrietan proposatu animazioetaz Senpereko herriaren webgunean: www.saint-pee-sur-nivelle.com eta Ezpeletarenean: www.espelette.fr

Prentsarekiko harremanetarako:
Direction de la communication de la Communauté d'Agglomération Pays Basque /
Euskal Hirigune Elkargoko komunikazio zuzendaritza
05 59 44 74 58